

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Arrunta.

Data: 2015-02-23 (astelehena)

Ordua: arratsaldeko 19:00tan

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Erreferentzia: O-15-01

Honen bitartez eta alkate jaunaren aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko otsailaren 20a
Idazkari-kontuhartzailea

EGUNEKO GAI ZERRENDA

1.-Azkeneko Udal Osoko Bilkuretako akten onarpena zuzen irizten bada:

-O-14-02 (2014-11-17).

-E-14-06 (2014-12-22)

2.-Azkeneko Udal Osoko Bilkura Arruntetik aurrera Alkatetzak eman dituen Dekretuen berri ematea (R-14-209/R-15-026).

3.- Itsaso Bherria Udalerria Berreskuratzeko Elkarteak, Itsasok udalerrri izaera berreskuratzeko prozesuaren baitan, 2015eko otsailaren 19an aurkeztutako eskaera.

4.- 2015eko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra hasierako izaeraz onartzeko proposamena, eta halaber 2014ko AD dokumentuak inkorporatzea.

5.- Espainiako Gobernuaren ordezkariak hainbat helegite eta esku-hartze juridiko egiten ari dela eta, UEMAK aurkeztutako mozioaren onarpena zuzen irizten bada.

6.- Erregu eta galderak.

.....//.....

0-0-15-01: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

2015EKO OTSAILAREN 23KO UDAL OSOKO BILKURA ARRUNTA

Ezkio-Itsason, bi mila hamabosteko otsailaren hogeita hiruan.

Egun honetako arratsaldeko 19:00ak direnean, Udaletxeko Areto Nagusian Udal Plenoa biltzen da, Garikoitz Aiesta Etxaniz alkatearen lehendakaritzapean, lehenengo deialdian eta alde zuzenetik eta behar den eran Udalkide guztiei igorri zaien eguneko Aztergai Zerrendaren arabera.

Batzarreratzen dira ondoko Udalkide hauek:

- Jose Ignacio Etxezarreta Estala (EIK).
- Mikel Igartua Anduaga (EIK)
- Lourdes Lasa Arbilla (EIK).
- Ander Unzurrunzaga Idiakez (EIK).
- Eneko Zabaleta Lasa (EIK).

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria desenkusatzuz:

- Ruth Idiakez Alberdi (EIK)

Ez dira agertzen, baina beren ezinetorria ez dute desenkusatzuz:

- Inor ez.

Idazkari, Udaleko idazkari-kontuhartzaileak egiten du:

- Martin Iparragirre Mujika.

.....//.....

Segidan eta Presidentearen baimenez, nik, idazkari honek, Batzarra egin daitekeela adierazten dut, zeren Udalari dagozkion eta osatzen duten Udalkide gehienak bertaratu baitira, horrela apirilaren 2ko 7/1.985 Legearen 46-2 artikuluan eta azaroak 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduaren 90.1 artikuluan xedatzen denarekin bat etorritz.

.....//.....

2-0-15-01: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

LEHEN PUNTUA:

AZKENEKO UDAL OSOKO BILKURETAKO AKTEN ONARPENA ZUZEN IRIZTEN BADA:

-O-14-02 (2014-11-17).

-E-14-06 (2014-12-22).

Ikusirik Udalkide guztiei bidali zaizkiela aipatuko den Udal Osoko Bilkurei dagozkien akta-minutak, Udal Osoko Bilkurak, aho batez,

ERABAKI DU:

BAKARRA:

Aurkeztu diren eran onartzea honako akta minutak:

-O-14-02 (2014-11-17).

-E-14-06 (2014-12-22).

BIGARREN PUNTUA:

AZKENEKO UDAL OSOKO BILKURATIK AURRERA ALKATETZAK EMAN DITUEN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Udal Entitateen funtzionamendu eta antolaketa arautzen duen 2568/1986 Erregalamenduko 42. artikulua xedatutakoaren arabera, alkate jaunak azken Udal Osoko Bilkuratik aurrera eman dituen ebazpenen berri ematen dio Udal Osoko Bilkurari.

Ebazpenak: R-14-209/R-15-026 (zerrenda osoa aurkezten da).

HIRUGARREN PUNTUA:

ITSASO BHERRIA UDALERRIA BERRESKURATZEKO ELKARTEAK, ITSASOK UDALERRI IZAERA BERRESKURATZEKO PROZESUAREN BAITAN, 2015EKO OTSAILAREN 19AN AURKEZTUTAKO ESKAERA.

Alkate jaunak adierazi du aurkeztutako idatzian 3 eskaera hauek jasotzen direla:

.....//.....

3-0-15-01: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

- a. Udal-Batzak ITSASO segregatzeko edo desanexionatzeko administrazio-espeditentari hasiera ematea, 1690/86 Errege Dekretuaren 11garren artikuluan xedatutakoaren arabera.
- b. ITSASO BHERRIA UDALERRIA BERRESKURATZEKO ELKARTEA Batzorde Sustatzaile moduan onartzea.
- c. Ondasunen banaketa irizpideak adosteko dagokion Batzordea eratu eta indarrean jartzea.

Jarraian gaia eztabaidatzen da, eztabaida betez ere a) atalean zentratzen da, zeren eta prozedura hasteak dituen ondorioak kontuan izanda ulertzen da pauso hori emateko gutxienez irizpideak adostuta egon beharko liratekeela; b) eta c) eskaerei dagokienez ez da onartzeko inongo arazorik ikusten.

Hori dena kontuan hartuta, eta gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak aho batez,

ERABAKI DU:

LEHENA:

Itsaso segregatzeko edota desanexionatzeko administrazio-espeditentari hasiera emateko eskaera ez onartzea.

BIGARRENA:

ITSASO BHERRIA UDALERRIA BERRESKURATZEKO ELKARTEA Batzorde Sustatzaile moduan onartzea.

HIRUGARRENA:

Ondasunen banaketa irizpideak adosteko dagokion Batzordea eratu eta indarrean jartzea, horretarako behar den pausoak ematen hasteko konpromisoa hartuz.

LAUGARREN PUNTUA:

2015EKO EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA HASIERAKO IZAERAZ ONARTZEKO PROPOSAMENA, ETA HALABER 2014KO AD DOKUMENTUAK INKORPORATZEA.

2015EKO AURREKONTUA:

.....//.....

4-0-15-01: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

Ikusirik idazkari-kontuhartzaileak aurkeztu duen 2015eko ekitaldiko Udal Aurrekontuaren proiektua (barne 2015eko plantila organikoa eta lanpostu zerrenda); espedientearen laburpena honako hau da:

Dirusarrerren egoera

Kapitulua k	Izena	Euroak
1	Zuzeneko zergak	285.098,58
2	Zeharkako zergak	15.000,00
3	Tasak eta bestelako sarrerak	132.960,02
4	Transferentzia arruntak	484.968,75
5	Ondarezko sarrerak	21.673,11
6	Inbertsio errealak	202.152,04
7	besterenganatzea, eta abar	345.791,72
8	Kapital Transferentziak	0,00
9	Finantz aktiboen aldaketa	0,00
	Finantz pasiboen aldaketa	
GUZTIRA		1.487.644,22

Gastuen Egoera

Kapitulua k	Izena	Euroak
1	Pertsonal gastuak	290.000,00
2	Ondasun arrunten erosketak	300.000,00
3	Finantz pasiboen interesak	0,00
4	Transferentzia arruntak	125.228,38
6	Inbertsio errealak	768.915,84
7	Kapital transferentziak	3.500,00
8	Finantz aktiboen aldaketa	0,00
9	Finantza pasiboen aldaketa	0,00
GUZTIRA		

.....//.....

	1.487.644,22
--	--------------

Gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren Udal Osoko Bilkurak aho batez,

ERABAKI DU:

LEHENENGOA :

2015 urteko ekitaldirako Udal Aurrekontu-proiektua hasierako izaeraz onartzea.

BIGARRENA:

Espedientea arauzko eran jendaurreko erakustaldian jartzea. Erakustaldi horretan erreklamazio edo alegaziorik aurkeztuko ez balitz, besterik gabe behin betiko onartutzat joko da. Azken hau jendaurreko erakustaldian ohartaraziko da.

HIRUGARRENA:

2015 ekitaldirako udal langileen plantila eta lanpostuen zerrenda onartzea, eta hauek ere arauzko eran jendaurreko erakustaldian jartzea.

2014KO AD DOKUMENTUAK INKORPORATZEA.

Ikusirik idazkari-kontuhartzaileak 2014ko "AD dokumentuak" inkorporatzeko aurkeztu duen proposamena (faktura gabe pendiente geratu diren obligazioak dira):

Gastuak:

AD ZENBAKI A	Izena	Euroak

.....//.....

1152	Desjabetze gastuak.	4.000,00
1153	Herri Eskolako proiektua.	593.263,90
1154	Itsaso desanexio txostenak	5.640,00
1155	Mapa Toponimikoa	8.771,00
GUZTIRA		611.674,90

Finantziazioa:

Kapitulua k	Izena	Euroak
	2014ko gerakina	611.674,90
GUZTIRA		611.674,90

Gaia behar adina aztertu eta eztabaidatu ondoren Udal Osoko Bilkurak aho batez,

ERABAKI DU:

BAKARRA :

2014ko "AD dokumentuak" inkorporatzeko espedientea onartzea aurkeztu den eran.

BOSGARREN PUNTUA:

ESPAINIAKO GOBERNUAREN ORDEZKARITZAK HAINBAT HELEGITE ETA ESKU-HARTZE JURIDIKO EGITEN ARI DELA ETA, UEMAK AURKEZTUTAKO MOZIOAREN ONARPENA ZUZEN IRIZTEN BADA.

Udal Osoko Bilkurak aho batez onartu du UEMAK proposatutako honako mozio hau:

- Ezkio-Itsasoko Udalak euskara sustatzeko egiten ari den ahalegina berretsi nahi du. Euskararen bidea beste eragile eta instituzioekin elkarlanean garatzeko konpromisoa adierazi nahi du.
- Gure herria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik. Horregatik, udalerrri euskaldunak, euskararen aurnasguneak indartzeko,

.....//.....

7-0-15-01: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

politika eraginkorrek abian jartzen saiatuko gara; hizkuntza politika euskara sailetik harago eraman, eta euskararen arnasmuneak duten garrantzia aintzat hartuta, politika orokorraren erdigunean kokatzen saiatuz.

- Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak udalen jardunean eta bereziki euskara sustatzeko neurrien aurka izandako esku hartzea salatu nahi dugu. Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren figura eta lana bertan behera uzteko eskatzen dugu.
- Eusko Jaurlaritzari eskatu nahi diogu euskara sustatzeko ahaleginean ari garen udalerrri euskaldunetako Udalak babestu ditzan.
- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak deituta, euskaldunoi ezartzen zaizkigun oztopoak salatu eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko, otsailaren 28an 17:30ean, Donostiako Gipuzkoa Plazatik abiatuta egingo den Manifestazioarekin bat egin nahi du Ezkio-Itsasoko Udalak. Herritarrei dei egin nahi diegu mobilizazioan parte hartzeko.

SEIGARREN PUNTUA:

Azaroaren 28ko 2.568/1.986 Erret Dekretuz onarturiko Toki Erakundeen Antolakuntza, Iharduera eta Legezko Jaurbidearen Erregelamenduan xedatutakoareki bat etorriz, Udal Osoko Bilkurak aho batez mozio hau eguneko gai zerrendan sartzea erabaki du.

MARTXOAREN 8A "EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA"RI BURUZKO DEKLARAZIOA ONARTZEA.

Udal Osoko Bilkurak aho batez onartu du EUDELek proposatutako honako deklarazio hau:

- 1) Martxoaren 8a/Emakumeen Naziorteko Eguna nazioarteko komunitateak adostutako data da, eta ekimen horren helburua mugimendu feministak eta emakumeen elkarten mugimenduak zein emakume eta gizonen mugimenduak berdintasuna lortzeko asmoz egindako lana aintzat hartzea da.
- 2) Martxoaren 8a dela eta, emakumeen mugimenduaren ekimenak babestearen garrantzia azpimarratzen da, helburu hauek lortzeko:
 - a. Emakumeen partaidetza soziopolitikoa eta elkarte-sarea sustatu, ahalbidetu eta babestea.

.....//.....

8-0-15-01: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA

- b. Udal instituzioen eta herritarren arteko aliantzak sortzea, tokiko berdintasun politikak lantzeko.
 - c. Tokiko berdintasun politikak sustatzeko orduan, emakumeak eta emakumeen edota feministen mugimendu antolatua funtsezko solaskideak direla onartzea.
- 3) Udalak konpromisoa hartzen du mugimendu feminista edo emakumeen mugimendu antolatua sustatzeko, babesteko eta indartzeko, herriko bizitzan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna ahalbidetzeko asmoz.

ZAZPIGARREN PUNTUA. Erregu eta galderak.

Ez dago erregu edo galderarik.

Beterik deialdiaren helburua, 19:45ak direnean, eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, Udal Osoko Bilkura bukatutzat ematen da. Nik, idazkari bezala, akta hau idazten dut.

Ezkio-Itsaso, 2015eko otsailaren 23a

O.E.
ALKATEA

IDAZKARIA

.....//.....

9-0-15-01: OHIKO UDAL OSOKO BILKURA